




ISEI - IVEI

**E1.2.4. CURRICULUM KONPETENTZIA LHko 4.
MAILAN: INGELESEZKO HIZKUNTZA-
KOMUNIKAZIOA.**





IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA
BASQUE INSTITUTE FOR RESEARCH AND EVALUATION IN EDUCATION



Edizioa: 2021eko otsaila
© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatuta eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.hezkuntza.net



E1.2.4

Curriculum konpetentzia LHko 4. mailan: Ingelesa

SISTEMA VASCO
DE INDICADORES
EDUCATIVOS



Aurkibidea

INGELESEZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO KONPETENTZIAREN ESKURA-PENARI BURUZKO DATUAK LEHEN HEZKUNTZAKO (LH) 4. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2011, 2015, 2017 eta 2019. 4

E1.2.4.1 taula eta grafikoak: 6

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleek *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentzian* lortutako puntuazioen bilakaera, *Idatzizko ulermena*, *ahozko ulermena* eta *idatzizko adierazpena*, dimentsioetan, guztira eta sexuaren arabera..... 6

E1.2.4.2 taula eta grafikoak: 7

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentzian* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, guztira eta sexuaren arabera. 7

E1.2.4.3 taula eta grafikoak: 8

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentzian* geruzaren arabera (hizkuntz-ereduak eta ikastetxearen titulartasuna). 8

E1.2.4.4 taula: 9

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmilarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 9

E1.2.4.4 grafikoa: 10

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoa *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmilarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 2019. urtea..... 10



E1.2.4

Curriculum konpetentzia LHko 4. mailan: Ingelesa

SISTEMA VASCO
DE INDICADORES
EDUCATIVOS



INGELESEZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO KONPETENTZIAREN ESKURA-PENARI BURUZKO DATUAK LEHEN HEZKUNTZAKO (LH) 4. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2011, 2015, 2017 eta 2019¹.

Adierazle honek Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleek *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* duten errendimendu-mailaren inguruko informazioa ematen du. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2011, 2015, 2017 eta 2019 urteetako Ebaluazio Diagnostikoetan lortutakoak dira emaitzak. Ebaluazio honetan 250 puntuko batez bestekoa ezarri da, 50eko desbideratze tipikoarekin eta hiru errendimendu mailarekin.

Emaitzak aldagai jakin batzuk kontuan hartuta aztertzen dira: sexua, indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmailarekiko (jaioturtearen arabera), geruzak (ikastetxearen titulartasuna², hizkuntza-eredua³), aitaren eta amaren ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza.

Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian guztizko puntuazioa 239 puntukoa izan da 2019an. 2019ko edizioan, puntuazio handiena lortu duen dimentsioa *idatzizko adierazpena* da (250), ondoren *ahozko ulermena* (242) eta *idatzizko ulermena* (237) daude. 2011tik 2019ra bilakaera negatiboa izan da (11 puntu) eta jaitsi da 3 puntu 2015ean, puntu 1 2017an eta 7 puntu 2019an. *Idatzizko ulermenean* gauza bera gertatzen da, eta 2011tik 2019ra 13 puntu jaitsi da. *Ahozko ulermenean* 2015ean eta 2017an, puntuazioa (253) 2011koa baino 3 puntu altuagoa da; 2019an, ordea, 237 puntura jaitsi da. Sexuaren aldagaiari dagokionez, neskek mutilek baino puntuazio altuagoak lortu dituzte lau edizioetan eta hiru dimentsioetan. Nesken batez besteko puntuazio osoa (245), 2019ko edizioan, 12 puntu handiagoa da mutilena baino (233). Lau urteetako batez besteko diferentzia osoa 9 puntukoa da, eta hiru dimentsioetan, sexuaren araberrako aldea handienetik txikienera, 12 puntu *idatzizko adierazpena*, 10 puntu *ahozko ulermena* eta 7 puntu *idatzizko ulermena*. Alderik handienak 2019ko Ebaluazio Diagnostikoan daude.

2019an, *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, ikasleen ehunekoa % 18,1eko maila aurreratuan, % 50,4ko erdi-mailan eta % 31,5eko hasierako mailan izan da, errendimendu-maila handienetik txikienera. 2019an, maila aurreratuan eta erdi-mailan, nesken ehunekoa mutilena (4,8 puntu) eta (6,7 puntu) gainditzen du, hurrenez hurren; hala ere, hasierako mailan mutilen ehunekoak neskena gainditzen du (11,4 puntu); eredu hori errepikatu egiten da 2011, 2015 eta 2017ko edizioetan.

Geruzen araberrako batez besteko puntuazioak aztertzean, 2019an, ikusten da puntuazio altuena itunpeko A ereduari dagokiona dela (279), eta ondoren itunpeko B (255) eta D (248) ereduak daudela. Sare publikoaren barruan, D eredu (227) da puntuaziorik altuena duena eta A eredu (202) baxuena duena. Hau edizio guztietan gertatzen da.

2019ko ebaluazio diagnostikoan erdi-mailan eta maila aurreratuan dagoen ikasleen profila, ehunekorik altuenean, hau da: familiak goi mailako ikasketak dituztenak (% 78,2), irakasmailarekiko adin-egokitasunean dagoena (% 71,5) eta ISEK maila altua duena (% 80,3). Erdi-mailan eta maila aurreratuan ehuneko txikiena duen ikasleen profila irakasmaila errepikatu duten

¹ Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2011, 2015, 2017 eta 2019. Txosten orokorra. <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

² EAEn funts publikoak jasotzen dituzten bi sare daude: titulartasun publikokoa eta itunpekoa.

³ EAEn hiru hizkuntza-eredu daude: A (irakaskuntzako hizkuntza gaztelania), B (irakaskuntzako hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D (irakaskuntzako hizkuntza euskara).



E1.2.4

Curriculum konpetentzia LHko 4. mailan: Ingelesa

SISTEMA VASCO
DE INDICADORES
EDUCATIVOS



ikasleena (% 31,5), derrigorrezko ikasketak amaitu gabe dituzten gurasoena (% 41,9) eta ISEK maila baxua (% 50,5) dutenena da. 2011tik 2019ra bitarteko datuen bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da goi-mailako ikasketak dituzten familien ehunekoak 10,5 puntu egin duela gora.



E1.2.4

Curriculum konpetentzia LHko 4. mailan: Ingelesa



SISTEMA VASCO
DE INDICADORES
EDUCATIVOS



E1.2.4.1 taula eta grafikoak:

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleek *Ingeleseko hizkuntza-komunikazioko konpetentzian* lortutako puntuazioen bilakaera, *Idatzizko ulermena*, *ahozko ulermena* eta *idatzizko adierazpena*, dimentsioetan, guztira eta sexuaren arabera.

		2011	2015	2017	2019
Guztira	Guztira	250	247	246	239
	Neskak	255	250	249	245
	Mutilak	245	245	242	233
<i>Irakurmena</i>	Guztira	250	245	241	237
	Neskak	253	247	244	242
	Mutilak	247	242	239	231
<i>Entzumena</i>	Guztira	250	253	253	242
	Neskak	256	256	257	250
	Mutilak	244	249	248	235
<i>Idatzmena</i>	Guztira	250	250	250	250
	Neskak	256	255	255	258
	Mutilak	244	245	245	242



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2011, 2015, 2017 eta 2019.



E1.2.4

Curriculum konpetentzia LHko 4. mailan: Ingelesa



SISTEMA VASCO
DE INDICADORES
EDUCATIVOS



E1.2.4.2 taula eta grafikoak:

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Ingeleseko hizkuntza-komunikazioko konpetentzian* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, guztira eta sexuaren arabera.

	HASIERA Errendimendu maila			ERDIA Errendimendu maila			AURRERATUA Errendimendu maila		
	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak
2011	22,7	18,8	26,4	53,3	54,5	52,1	24,0	26,7	21,5
2015	23,4	20,7	25,9	55,2	56,5	54,0	21,4	22,8	20,1
2017	18,3	15,4	21,0	66,1	67,5	64,8	15,6	17,2	14,2
2019	31,5	25,6	37,0	50,4	53,8	47,1	18,1	20,6	15,8



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2011, 2015, 2017 eta 2019..



E1.2.4

Curriculum konpetentzia LHko 4. mailan: Ingelesa



SISTEMA VASCO
DE INDICADORES
EDUCATIVOS



E1.2.4.3 taula eta grafikoak:

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Ingeleseko hizkuntza-komunikazioko konpetentzian* geruzaren arabera (hizkuntz-ereduak eta ikastetxearen titulartasuna).

	2011	2015	2017	2019
A Publikoa	203	212	208	202
B Publikoa	235	230	233	217
D Publikoa	241	238	236	227
A Itunpekoa	278	286	279	279
B Itunpekoa	259	258	256	255
D Itunpekoa	261	256	253	248



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2011, 2015, 2017 eta 2019.



E1.2.4

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Ingelesa

SISTEMA VASCO
DE INDICADORES
EDUCATIVOS



E1.2.4.4 taula:

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Ingelesezk*o *hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza.

		Ikasle %				Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
		2011	2015	2017	2019	2019		
ISEK	Maila baxua ²	15,1	16,3	17,1	17,1	49,5	42,2	8,4
	Maila ertain baxua ²	24,3	24,0	26,3	24,4	36,0	52,5	11,6
	Maila ertain altua ²	27,5	27,8	25,4	25,6	30,5	53,3	16,2
	Maila altua ²	33,1	31,9	31,2	32,9	19,7	50,8	29,5
Egokitasuna	Ikasmaila egokia	92,0	92,4	93,4	92,4	28,5	52,1	19,4
	Ikasmaila EZ egokia	8,0	7,6	6,6	7,6	68,5	29,1	2,4
Titulartasuna	Publikoa	50,7	50,9	51,4	51,9	39,8	49,0	11,2
	Itunpekoa	49,3	49,1	48,6	48,1	22,6	51,9	25,5
Gurasoen ikasketa mailarik altuena	Derrig. Ikask. bukatu gabe	3,9	3,7	3,5	3,5	58,1	38,3	3,6
	Derrigorrezko ikasketak	14,7	12,7	11,2	11,0	49,4	42,7	8,0
	Batxilergoa, HZ	38,5	36,5	35,2	31,9	37,2	52,3	10,6
	Goi mailako ikasketak	43,0	47,0	50,1	53,5	21,8	52,0	26,2
Jaioterria	Autoktonoa	93,9	94,2	91,4	89,5	30,3	50,8	18,9
	Atzerritarra	6,1	5,8	8,6	10,5	42,2	46,8	11,0
Familia-hizkuntza	Euskara	23,3	26,0	26,3	22,3	27,3	54,6	18,1
	Euskara EZ dena	76,7	74,0	73,7	77,7	32,7	49,2	18,2

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2011, 2015, 2017 eta 2019.



E1.2.4


Curriculum konpetentzia LHko 4. mailan: Ingelesa

SISTEMA VASCO
DE INDICADORES
EDUCATIVOS



E1.2.4.4 grafikoa:

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoa *Ingeleseko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 2019. urtea.



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2019.